

Nafar hizkuntza

euskera@diariodenavarra.es

Joanes Leizarragak euskarara ekarri zuen Testamentu Berriak 450 urte beteko ditu aurten. Euskaltzaindiak ekainean antolatu nahi du Baionan urteurren berezi horren inguruko ekitaldia

Testamentu Berriaren 450 urte

N. AZURMENDI Donostia

EUSKAL argitalpenen inguruko zenbait urteurren deigarri izanongo dira 2021 hasiberri honetan. Mendeurrenak izango dira ugariena, 1921ean euskal kultura ez baitzegoen ez isilik, ez geldirik. Liburuak alde batera utzita, urte hartan argitaratu zen esate baterako, Jose Migel Barandiaranen (1889-1991) ardura-pean, *Anuario de la Sociedad Eusko-Folklore* aldizkariaren lehen zenbakia, eta 1976 urtera arte iraun zuen *Gure Herria* aldizkariarena ere bai, Louis Dausance (1888-1996) zuzendari zela.

Denboran atzera eginez gero, urteurren bat nabarmentzen da besteen gainetik: Joanes Leizarragaren *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*-ren lehen edizioaren 450. a, 1571. urtean — irailaren 24an, zehazki — eman baitziren argitara Leizarragaren itzulpen lanak, Arroxelako Pierre Hautinen inprimategian: *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria, Kalendrea eta ABC, edo Christinoen Instructionea*.

Euskaltzaindiaren webgunean Leizarragari eskainitako atalean irakur daitekeenez, "liburu hau da, ziur aski, euskal liburuen artean ospetsuena", horretaz hitz egitea "Erreforma Protestanteaz hitz egitea" baita. Eta Joana Albretekoa Nafarroako erreginaz.

Frantziako errege (katoliko) izango zen Henrike IV. ren amak, hain zuzen, indar handia egin zuen, 1560. urtean katoliko izateari uko egin eta erlijio berrira bildu ondoren, Kalbinen doktrina herri xeheari euskaraz hela-



Albreteko Joana Nafarroako erreginaren erretratu, Testamentu Berriaren orrialde batean.

ARTXIBO/BENÍTEZ

razteko. Erreginaren borondateari men eginez, eta haren kontura, 1563an Paben egin zen kalbinisten lehen sinodoan erabaki zen Leizarragaren gain uztea Kalbinen Testamentu Berria eta beste zenbait liburu euskaratzearen ardura, latinari eusten zioten katolikoek ez bezala garrantzi handia ematen baitzieten herri hizkerari.

XVI. mendean lehen urteetan Lapurdi Ekialdeko Beskoitzan jaiotako Joanes Leizarragaren izena betikotu da, baina ez zen bera izan itzultzaile bakarra, talde zabal baten gidari baizik.

Leizarragari eskainitako *Bidegi-leak* bildumako alean Esther Zulaikak idatzi zuenez, talde horretako kideak, "antza denez, Piarres Landetcheverry, Sanz de Tartas, Joannes Etcheverry eta Tardetz izan ziren: lehenengo biak — eta agian azkena ere bai — zuberotarrak, eta hirugarrena lapurtarra. Leizarraga bera bezala, laurak apaiz katoliko izanak ziren protestante bihurtu aurretik".

Erreginaren ahaleginak ez zuen esperotako eragina izan, ez baitzuen konbertsio askorik lortu euskaldunen artean, baina euska-

ren historiako libururik garrantzitsu eta berezietako bat utzi zuen. Dozena bat ale baino ez dira heldu gure egunotara; horietako hiru Euskaltzaindiak dauzka.

Leizarragaren Testamentu Berriaren 450. urteurrena merezi duen moduan ospatzeko asmoa ere badu Euskaltzaindiak. Akademiak aurrekusten du ekainaren 25ean Osoko bilkura egitea Baionan eta Leizarragaren *Jesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*-ren 450. urteurrena go-goan izatea jardunaldi baten eta erakusketa baten bitartez.

Jon Alonsok 'Naparra' kasua berreskuratu du liburu batean

• Idazle iruindarrak ikerketa zabal eta sakon bati ekin dio Tene Mujika bekaren laguntzarekin

DN Iruñea

Jose Miguel Etxeberria Alvarez 'Naparra', Komando Autonomo Antikapitalistetakoa militantea eta Iparraldean errefuxiatua, 1980ko ekainaren 11n desagertu zen, norbaitek bahitu eta eraila. Ordutik ez da haren gorpurik agertu, ez desagertaren egileez edo xehetasunez berri zehatzik jakin. Gertaera latz hau abiapuntutzat hartuz, Jon Alonso idazle iruindarrak *Naparra. Kasu irekia* liburuakaleratu du Tene Mujika bekaren laguntzarekin, eta pasa den asteazkenean Iruñeko Katakarak aretoan aurkeztu zuen. Alonsok ikerketa sakon bati ekin dio, kasu horretaz informazio guztia biltzeko, baita ilunpean dagoena gogorarazteko ere. "Oso garrantzitsua iruditzen zait gazteek liburuan auzaltzen dena eskura izatea, herri honetan zer gertatu den jakiteko, eta ez bakarrik errelato ofizialek esaten diren gauzekin", adierazi du Alonsok lan honi buruz.

Abian da album ilustratuak sortzeko Etxepare saria

• Epea maiatzaren 7ra arte izango da eta epaimahaiak ekainaren 30ean jakinaraziko du erabakia

DN Iruñea

Haurrentzako albumak sortzeko 2021eko Etxepare saria martxan da jada. Haurrei zuzendutako euskarazko lan ilustratuak (jatorrizkoak eta argitaratu gabeak) aurkeztu daitezke, bakarka edo idazle-illustratzaile taldea osatuz. Maiatzaren 7a izango da lanak aurkezteko azkenengo eguna, eta epaimahaiak ekainaren 30ean jakinaraziko du erabakia. Formatua librea da, baina lanak ez dira 20 x 21 cm baino txikiagoak izango, eta gutxienez 15 orrialde bikoitz izan beharko dituzte. Sari bakarra emango dute, 5.000 eurokoa, egile eskubideen aurre-rapen gisa. Saritutako lana Pamela argitaletxeak kaleratuko du euskaraz. Sariketan parte hartzeko albumaren maketa aurkeztu beharko da, pdf formatuan, info@etxeparesaria.eus helbidera. Lanaren bertsio inprimatua ere bidali izango da, ohiko postaz. Oinarriak etxeparesaria.eus webgunean daude.

Jon Arretxek Sumatran girotu du bere abenturazko nobela berria

'Harresi Handirantz' eta 'Beti Iparralderantz' arrakastatsuen ondoren, 'Trumoiaren alaba' kaleratu du

NEREA ALEJOS

Iruñea

Harresi Handirantz eta *Beti Iparralderantz* arrakastatsuen ondoren, Jon Arretxe idazleak bere hirugarren abentura-nobela kaleratu du, *Trumoiaren alaba*. Indonesiako Sumatra uharteran kokatuta, Batari izeneko neskatobata da istorio honen protagonista nagusia. Hamabi urtetik gorako gaztetxoentzat gomendatutako irakurketa da. "Hiru abentura-nobela hauen kasuetan, ezagutzen ditudan lekuetan kokatu ditut istorioak, eta oraingo honetan Sumatran. 2004.ko

tsunami famatua jo zuenean, hantxe izan zen epizentroa, Sumatrako iparraldean, nik ezagutzen dudana eskualdea. Nobela horrela abiatzen da, tsunami batekin", azaldu zuen Arretxek pasaden ostiralean Donostian egingandako aurkezpenean.

Batari eta bere neba txikia, Kusuma, bakarrik geratu dira munduan tsunami horren ondorioz. Ibilbide luze bat egin behar dute elkarrekin uharteran zehar harrera ona egingo dien ahaideren baten bila.

Ustekabez eta magiaz zipriztindutako istorio honetan, mila abentura eta arrisku biziko dituzte neba-arrebok eta hainbat

adiskide egingo dituzte beren helburua lortzen lagunduko dietenak. "Beti gustatu zait magiaren kontua sartzea horrelako nobeletan. Kultura zaharretan beti eman zaio garrantzi handia magiari", esan zuen Arretxek. Nobela honetan hainbat gai jorratu ditu: "Emakumeen egoera, naturaren kontserbazioa, turismoaren eragina, erlijioen arteko lehiak, mehen trafikoa, mafien lana...", zehaztu zuen. "Sumatra aldean Amazoniaren antzeko ohian bat zegoen, izugarria", gogoratu zuen. "Han orangutanak eta tigreak ia bakarrik bizi ziren, baina palma olioaren kontuagatik, dena suntsitu da. Sekulako astakeriak egin dira", salatu zuen.

Bestalde, munduaren bazter ezezagun hori pixka bat ezagutzen lagunduko dio irakurleari. Liburuak idazten hasi aurretik, Arretxe bidaiari amorratua izan zen. "Oso gaitzetan hasi nintzen



Jon Arretxe, liburuaren azala erakusten.

EREIN

bidaiatzen. Ez neukan buruan istorioak idaztea. Hortik urte batzuetara, bidai horiek kontaktzen hasi nintzen. Kronikak izaten ziren. Gaztetxoentzako istorioetan egiten dudana guztiz fikzioa da, baina nik neuk bizi izandako esperientziak aprobetxatu egin ditut", azaldu zuen Arretxek. "Oinarri horrekin errazago idazten da eta nik uste dut liburuak sinetsgarriagoak ere geratzen direla".

'TRUMOIAREN ALABA'

Egilea: Jon Arretxe
Argitaletxea: Erein
Orrialde kopurua: 144
Salneurria: 15 €